



Leku-izen berezien gaineko gorabehera batzuk



- Zenbait lurralde- eta udal-izenen jokabidea
- Jentilizioak: leku-izen bereziak + -(T)AR



Zenbait lurralde- eta udal-izenen jokabidea

Euskal Herriko zenbait lurralde- eta udal-izenek **a** bokala dute bukaeran. Horietako batzuek bokalari eusten diote jokatzeko direnean, eta beste batzuek, berriz, galdu egiten dute.

Zenbait lurralde- eta udal-izenen jokabidea

Lurralde- eta udal-izen hauek eusten diote **a** bokalari:

- Aurten ere pasatuko da **Mungiatik** Korrika.
 - *Aurten ere pasatuko da **Mungitik** Korrika.
- Gaur arratsaldean **Getariara** joango naiz.
 - *Gaur arratsaldean **Getarira** joango naiz.
- **Donostiako** argazki zahar batzuk erakutsi zizkidaten.
 - ***Donostiko** argazki zahar batzuk erakutsi zizkidaten.
- Aste honetan bertan desagertuko da **Errenteriako** eraikin historiko hori.
 - *Aste honetan bertan desagertuko da **Errenteriko** eraikin...
- Jende asko hurbilduko da **Ondarroara**.
 - *Jende asko hurbilduko da **Ondarrura**.

Zenbait lurralde- eta udal-izenen jokabidea

Honako hauek ere eusten diote **a** bokalari:

- | | | | |
|-------------|------------|------------|------------|
| ○ Aezkoa | ○ Garaioa | ○ Lemoa | ○ Pasaia |
| ○ Alegia | ○ Gipuzkoa | ○ Lodosa | ○ Plentzia |
| ○ Apaioa | ○ Hendaia | ○ Makea | ○ Zaldibia |
| ○ Aramendia | ○ Irabia | ○ Mendabia | ○ Zestoa |
| ○ Atarrabia | ○ Izpurua | ○ Nafarroa | ○ Zuberoa |
| ○ Barrundia | ○ Ledea | ○ Ordizia | ○ Zuia |
| ○ Bedia | ○ Legaria | ○ Ororbia | ○ Zumaia |
| ○ Gabiria | ○ Leioa | ○ Ostankoa | ○ |



Zenbait lurralde- eta udal-izenen jokabidea

Lurralde- eta udal-izen batzuek **a** bokala galtzen dute lekuzko deklinabide-kasuetan:

- **Bizkaia** Euskal Herriko zazpi herrialdeetako bat da.
- **Bizkaian** sortzen diren hiri-hondakin guztiak tratatu beharko dira.
- **Bizkaitik** Leitzara joateko autobusa antolatu dugu.
- Zaborra **Bizkaira** eramateko ituna hiru urtez luzatzea eskatuko dute.
- **Bizkai**ko kazetariak urteko kirolari onena izendatu dute.
- Ermita hori Elgoibartik **Bizkairantz** doan bide nagusi zaharrean dago.

Alegia, izen arrunten antzera jokatzeko dira lekuzko kasuetan:
a bokalik gabe, NON kasuan izan ezik.



Zenbait lurralde- eta udal-izenen jokabidea

Honako hauek ere galtzen dute **a** bokala:

- | | | |
|----------------|--------------------|-----------------|
| ○ Abaurregaina | ○ Forua | ○ Olatzagutia |
| ○ Abaurrepea | ○ Harana | ○ Otsagabia |
| ○ Asparrena | ○ Hondarribia | ○ Urizaharra |
| ○ Azkoitia | ○ Iruñea | ○ Zigoitia |
| ○ Azpeitia | ○ Mallabia | ○ Ziordia |
| ○ Basaburua | ○ Mañaria | ○ Zizur Nagusia |
| ○ Berriatua | ○ Medigorria | ○ ... |
| ○ Busturia | ○ Nafarroa Beherea | |
| ○ Ermua | ○ Olaberria | |



Zenbait lurralde- eta udal-izenen jokabidea

Eskualde-izen batzuek *alde*, *ibar*, *merindade* edo *haran* izena dute osagai, edo *garai*, *handi* edo *txipi* izenondoa. Eskualde-izen horiek ere galtzen dute **a** bokala, jokatzeko direnean:

- Durangaldea (-a)
- Ezkerraldea (-a)
- Tolosaldea (-a)
- Lapurdi Ekialdea (-a)
- Lapurdi Erdialdea (-a)
- Tuterako Merindadea (-a)
- Erriberriko Merindadea (-a)
- Iruñeko Merindadea (-a)
- Enkarterriko Haranak (-ak)
- Ameskoa Ibarrak (-ak)
- Urraul Ibarrak (-ak)
- Lapurdi Garaia (-a)
- Arbaila Txipia (-a)



Zenbait lurralde- eta udal-izenen jokabidea

Gogoratu, bestalde, leku-izen berezi hauek ez dutela **a** bokalik:

- | | | |
|----------------|---------------|---------------|
| ○ Altsasu | ○ Elbete | ○ Legazpi |
| ○ Arrakasgoiti | ○ Eltzaburu | ○ Luhuso |
| ○ Aulesti | ○ Erriberri | ○ Ubide |
| ○ Aurizberri | ○ Errigoiti | ○ Ulibarri |
| ○ Bakaiku | ○ Hiriberrri | ○ Ulibeiti |
| ○ Benegorri | ○ Ibarrangelu | ○ Unanu |
| ○ Beramendi | ○ Itsasperri | ○ Urraulbeiti |
| ○ Berriobeiti | ○ Iturmendi | ○ Urraulgoiti |
| ○ Berriogoiti | ○ Larrabetzu | ○ Urretxu |



Jentilizioak: leku-izen bereziak + -(T)AR

Leku-izen bereziei -(t)ar atzizkia erantsiz, jatorria adierazten duten izenondoak sortzen dira:

- Gipuzkoa + (t)ar = gipuzkoar
- Gorkiz + (t)ar = gorkiztar
- Zarautz + (t)ar = zarautzar
- Legazpi + (t)ar = legazpiar
- Donostia + (t)ar = donostiar
- Plentzia + (t)ar = plentziar



Jentilizioak: leku-izen bereziak + -(T)AR

Noiz *-ar*, noiz *-tar* eta noiz *-dar*?

Horri buruzko informazioa, Euskaltzaindiak ematen digu, argitalpen digital hauetan:

Onomastika

- [Euskal Herriko leku-izenak](#) (Pdf, 2,8 Mb)
- [Euskal Herriko udalerrien zerrenda alfabetikoa](#) (Pdf, 470 Kb)
- Argibide-eskaerak



Jentilizioak: kokapena

Gramatikaren arabera, izenaren ezker/eskuinean joan daitezke; literatura-tradizioan, ezkerrean maizago agertzen dira baina.

- arabar poeta
- poeta arabarra

«Izenaren aurreko aldea oso kargatuta datorrenean -(t)ar hauek atzealdean (izenaren eskuinean) izenondo gisa ematea komeni da.»

[Sarasola, I. (1997) , *Euskara Batuaren Ajeak*. Donostia: Alberdania]



Jentilizioak: azken oharra

Leku-izen berezietatik sortzen badira ere, letra xehez idazten dira jentilizioak.

- Berrogei ordu daramatza **bilbotar** mendizale batek Andeetan galduta.
 - *Berrogei ordu daramatza **Bilbotar** mendizale batek...
- Irristailuen lasterketan, **gasteiztar** irristalariak nagusitu ziren.
 - *Irristailuen lasterketan, **Gasteiztar** irristalariak nagusitu ziren.
- Hilaren 23an, Jon Plazaola **donostiar** tenor ospetsua izango dugu gurean.
 - * ... Jon Plazaola **Donostiar** tenor ospetsua izango dugu.